



## ELKARBIZITZARAKO ARAUDIA



## ELKARBIZITZARAKO ARAUDIA

*Eskola Kontseiluak 2011ko urriaren 26an onartutakoa*

Elkarren ondoan bizitzen irakastea eta ikastea hezkuntza lanaren funtsezko helburua da, eta ezinbestekoa gizarte demokratiko, solidario eta baketsu baterako. Hori lortzeko, eskola elkarteko kide guztiek parte hartu behar dute bizikidetzaren kudeaketan eta giro egokia lorpenean ikastetxe batean espero den prestakuntza lana garatzeko.

Ikasleen eskubide eta eginbeharrei eta ikastetxeetako bizikidetzari buruzko 47/2010 Foru Dekretuaren 10. artikuluan adierazten denez, Elkarbizitzaren Erregelamendua Elkarbizitza Planaren zati bat da eta, ikastetxearen errealitatea kontuan harturik, honako hauek zehaztu ditu:

- a) Elkarbizitzarako arauak, Dekretuan adierazitako eskubideen eta eginbeharren zehaztapen gisa.
- b) Elkarbizitzaren aurkako portaerak eta aplikatu daitezkeen hezkuntza neurriak.
- c) Ikastetxeko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak eta aplikatu daitezkeen hezkuntza.
- d) Hezkuntza neurri horiek aplikatzeko prozedurak.

## 1.- OINARRIZKO PRINTZIBIOAK

Elkarbizitzaren erregelamendua hau honako oinarrizko printzipio hauen arabera egin da:

- a) Elkarbizitza eskola elkarte osoaren erantzukizuna da, eta, beraz, elkarte horretako sektore guztiek hartuko dute beren ardura erregelamendua aplikatzeko: **Ikastetxeko zuzendaritzak**, giro egokia bultzatuz eta dagozkion hezkuntza neurriak aplikatuz; **Eskola Kontseiluak** eta **klaustroak**, ekimenak proposatuz elkarbizitza sustatzeko; **Tutoretzek**, integrazioa, elkarbizitza eta familiekiko lankidetzaren sustatzeko landuz; **Irakasleek**, errespetuzko giroa sustatuz, agintea erabiliz, bere erantzukizunaren eremuan neurria egokiak aplikatuz; **Ikasleek**, erregelamendua betez; **Familiek**, hezkuntza prozesua lagunduz, irakasleen agintea aitortuz, ikastetxeak hartzen dituen erabakiak errespetatuz.
- b) Erregelamendua une oro jasotzen ditu ikasle gehienak 18 urtetik gorakoak dituen Lanbide Heziketako ikastetxe baten berezko ezaugarriak. Erregelamendu honen esparruan aplikatzen diren prozedurek, hala badagokio, ikasleen adin-nagusitasuna jaso beharko dute.
- c) Erregelamendu honetan jasotako guztia bai eskola ordutegiaren eta eremuaren barrenean bai eskola ordutegitik eta eremutik kanpora egindako jardueri aplikatuko zaie, baldin eta zuzenean lotuta badaude komunitateko edozein kideren eskubide eta eginbeharrekin edo komunitateari zerbitzuak ematen dituztenekin, baita jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak garatzen diren bitartean egindakoei ere. Era berean, teknologia berriak erabiltzea dakarten jarduketari ere aplikatuko zaie, ikastetxean edo ikastetxetik kanpo, modu arduragabearen.

- d) Ikasle guztiek eginbehar eta eskubide berberak dituzte, ezberdintasun bakarrak adinaren arabera zehaztuz batzuk izan daitezke, eta beren eginbeharrak arduraz onartu beharko dituzte, eta eskubide bat erabiltzeak besteen eskubideak errespetatzeko eginbeharra dakarrela ulertu beharko dute.
- e) Erregelamendu honetan zehazten ez den guztirako 47/2010 Foru Dekretuan ikasleen eskubide eta eginbeharrei buruzkoan xedatutakoa beteko da.

### 2.- IKASLEAREN ESKUBIDEAK

Ikasleek eskubide hauek dituzte:

- a) Elkarbizitzaren printzipio demokratikoetan oinarritutako prestakuntza jasotzeko eskubidea, bai eta Giza Eskubideen adierazpenean, Konstituzioan, NFEBHLOn eta ikasleen eskubide eta eginbeharrei buruzko 47/2010 Foru Dekretuan aitortutako eskubide eta askatasunen errespetuan.
- b) Osoko prestakuntza eta kalitatezkoa jasotzeko eskubidea, pertsonen arteko harremanetarako gaituko dituen, interes eta ikasleen ahalmen ezberdinetara egokituta egongo dena, eta alderdi zientifiko eta didaktikoan eguneratuta egongo dena, eskolan, arlo pertsonalean eta profesionalean orientatuko duena, eta Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza aniztasuna errespetatuko duena.
- c) Errespetatua izateko eskubidea, bere intimitatean, kontzientzia askatasunean, sinesmen ideologiko, erlijioso eta moraletan, eta pertsonen desberdintasun eta aniztasunean. Horretarako, ikasleek elkarbizitza giro positiboaz gozatzeko eskubidea dute, errespetua eta elkartasuna sustatuko dituen, bai eta edozein erasoren aurkako babesa ere.
- d) Datu pertsonalen tratamenduaren konfidentzialtasuna izateko eskubidea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera.
- e) Objektibotasunez baloratua izateko eskubidea. Horretarako, programazio didaktikoen oinarriko alderdiak ezagutuko dituzte, ikaskuntza prozesuaren bilakaerari buruzko informazioa jasoko dute, eta argibideak eskatu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, bai ebaluazio partzialetan, bai azkenekoetan.

Eskubide hori modurik eraginkorrenean garatu ahal izateko, honako hau ezartzen da:

1.- Informazioaren hedapena, ahal den guztietan, bitarteko informatikoen bidez egiteko eskubidea.

2.- Ikasleek ikastetxean aurrez aurreko informazioa, kontsulta, argibidea edo berrikuspena eskatuz gero, haien legezko ordezkariak edo irakasleak hala eskatuz gero, eskaera hori hirugarren pertsonen aurrean egiteko eskubidea (tutorea edo taldeko beste irakasle bat, didaktika-saileko burua edo taldeko beste kide bat edo zuzendaritza-taldeko kide bat).

- f) Ikasleek ikastetxeko ordezkarien edo ikasleen legez eraturako elkarten bidez, ikastetxeko bizitzan eta gobernuaren organoetan parte hartzeko eskubidea.

Ikastetxeak ezartzen dituen modua, gunea eta baldintzetan biltzeko eta askatasunez adierazteko eskubidea, betiere Giza Eskubideak, balio demokratikoak eta ikastetxearen hezkuntza Proiektua errespetatuz.

- g) Aukera berdintasunean hezia izateko eskubidea, eta gabeziak edo desabantailak konpentsatzeko babesak eta laguntza jasotzekoa, batez ere familia ezbeharren edo istripuen, eritasun luzeen eta tratu txar fisiko edo psikologikoen kasuetan.
- h) Osasuna babesteko eskubidea, ohitura osasungarriak sustatuz.
- i) Gizonen eta emakumeen arteko eskubideen eta aukeraren berdintasunaren helburuak barne hartzen dituen hezkuntzarako eskubidea. Gizonak eta emakumeak berdinean tratatuko dituen, hizkuntza ez-sexista erabiliko duena eta estereotipo sexistak alde batera utzita zeregin guztietan erantzunkidetasuna sustatuko duena.

### 3.- IKASLEAREN EGINBEHARRAK

Ikasleek eginbehar hauek dituzte:

- a) Ikastea, ikasleen oinarrizkoa eginbeharra, jarduera akademiko guztietara aktiboki eta ahaleginduz parte hartzea eta garaiz joatea dakarrena.
- b) Irakasleen eta zuzendaritza taldearen agintea errespetatzea, haien oharrei kasu eginez hezkuntza lana garatzean eta elkarbizitza eta ikastetxeko antolaketa arauen jarraipenean ala kontrolean.
- c) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kide guztien duintasuna eta osotasuna errespetatzea, bai eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak ere, bazterketa mota guztiak saihestuz, bereziki pertsonen sexuari, arrazari eta jaiolekuari dagozkienak.
- d) Ikastetxeko elkarbizitzaren arauak betez elkarbizitza hobetzen parte hartzea eta laguntzea. irakasleekin eta administrazio eta zerbitzuetako langileekin lagunduz, gelan eta ikastetxean giro ona lortzeko, eta pertsona ahulenen alde jardunez.
- e) Besteenganako errespetua elkarbizitzaren oinarrizko araua izatea, ikaskide guztiei, eskubideak eta eginbeharrak gauzatzen erraztuz, jarrera baketsua sustatuz eta jende guztiak eskubidea duen kontzientzia askatasuna eta sinesmen ideologiko, erlijioso eta moralak errespetatuz. Era berean, eskola elkarteko edozein kideren ondasunak errespetatuko dira.
- f) Ikastetxera norberaren higieena zainduta eta egiten diren jarduerak egiteko behar bezala jantzita joatea, jantzi desegokiak, ez oso duinak eta errespetugabeak saihestuz, bai eta ikasleak identifikatzeko trabak jarri dezaketenak edo egiten diren irakaskuntza jarduerak kontrolatzea eragotzi dezaketenak ere.
- g) Ikastetxeko instalazioak, ekipamendua, altzariak eta materialak (sarbideak, patioak, espaloiak, fatxadak...) zaintzea eta egoki erabiltzea, hala nola ikastetxearen inguruetakoa, ordena eta garbitasuna mantenduz, eta paperak, pipak, latak, ogitartekoen hondarrak eta bestelakoak lurrera botatzea saihestuz.

- h) Ura eta energia egoki erabiltzea eta ingurumena errespetatzen duten ohiturak mantenduz ikastetxeko birziklatze baliabideak erabiliz.

## 4.- ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERAK

Elkarbizitzaren aurkako portaerak dira, ikastetxeko ohiko elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak ez direnak. Nolanahi ere, honako hauek elkarbizitzaren aurkako portaeratzat hartuko dira:

- a) Ikasteko eginbeharra ez betetzea, edo bere ikaskideek ikasteko duten eginbeharrak eta eskubideak baliatzea eragozten duen beste edozein portaera hartzea eskolak bitartean.
- b) Eskolara berandu iristea justifikatu gabe. Justifikatu gabeko puntualtasun hutsegitezat hartuko dira erakunde ofizial baten egiaztagiriaren bidez idatziz desenkusatzen ez direnak.
- c) Irakaskuntza presentzial ez-dualean matrikulatutako ikasleentzat eskolara ez joatea justifikatu gabe 10 aldiz, edo irakaskuntza presentzial dualean matrikulatutako ikasleentzat eskolara ez joatea justifikatu gabe 6 aldiz. Eskolara ez joatea justifikaziorik gabe hartuko da erakunde ofizialaren egiaztagiriaren bidez idatziz desenkusatzen ez diren hutsegitezat. Ikasleek bost egun natural izango dituzte ez bertaratzea justifikatzeko. Epe hori igarotakoan, ez bertaratzea justifikaziorik gabekotzat joko da. Hutsegitea egiaztagiri ofizialen bidez egiaztatzea ezinezkoa denez, tutoreak erabakiko du (zuzendaritzak babestuta) ikasleak emandako azalpenak (ezarritako epean) onartzen diren ez bertaratzearen justifikazio gisa.
- d) Irakaskuntza presentzial ez dualerako edo irakaskuntza presentzial dualerako justifikatu gabeko beste 10 edo 6 hutsegite egitea, hurrenez hurren.
- e) Eskolara behin eta berriz agertzea behar den materiala eraman gabe, hori ikasleari egotzi beharreko arrazoiengatik.
- f) Ikasleak lan gutxi egitea behin eta berriz, hala etxean nola ikasgelan.
- g) Azterketetan, probetan edo ariketetan kopiatzea edo beste ikasle batzuei kopiatzeko bidea ematea.
- h) Pertsonen duintasunaren eta legez ezarritako eskubide demokratikoen aurkako adierazpen berariazkoak egitea.
- i) Irakaslearen agintearen aurkako errespetu faltak, eta ikastetxeko langileei desobeditzea, beren eginkizunetan ari direla.
- j) Eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideak desegoki eta errespetu gabe tratatzea.
- k) Taldekako absentzietan parte hartzea, zuzendaritzak baimentzen ez baditu.
- l) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo nahita informazio faltsua ematea, horrek eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen kideren bati kalte larria eragiten ez badio.
- m) Debekatuta dauden ekipoak, materialak, jantziak edo gailuak eramatea, salbu eta zuzendaritzaren baimena badu (ikasgelan Internet modu desegokian erabiltzea, gailu elektronikoak erabiltzea, hala nola telefono mugikorrak, MP3,

- MP4...).
- n) Ikastetxeko guneak, materiala eta ekipamendua erabiltzea baimenik gabe, edo hezkuntzakoak ez diren helburuetarako edo baimendutakoak ez diren beste batzuetarako.
  - o) Jantzi desegokia erabiltzea, egiten den jarduerarekin bat datorrena.
  - p) Norberaren higieneari eta garbiketari behin eta berriz arreta galtzea, nahita.
  - q) Ikastetxeko instalazio edo materialak, edo bisitatzen diren lekuetako ondasun edo instalazioak nahita hondatzea, baita eskola elkartekoa den edo haren zerbitzura jarduten duen edozein kideren gauzak ere, kaltea arina denean.
  - r) Ikastetxea eta haren ingurunea zikintzea (instalazioak, ekipamendua, altzariak, materialak), baita ikastetxeak antolatzen duen jarduera batean bisitatutako lekuak ere.
  - s) Ikastetxearen barrenean edo ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bitartean edozein motatako substantzia toxikoak kontsumitzea.
  - t) Elkarbizitzaren aurkako portaerak egitera bultzatzea.
  - u) Zuzendaritzak edo erakunde eskudunek osasuna prebenitzeko ezarritako neurriak ez betetzea.
  - v) Ezinezkoa da gela birtualetan ikasleak argazki eguneratu baten bidez bisualki identifikatzea.
  - w) Plataforma telematikoetan erabilgarri dauden tresnak (mezularitzak, foroak, baliabideak, etab.) modu desegokian edo desegokian erabiltzea.
  - x) Eskola-jardueraren garapen normala aldatzen duen eta ikastetxeko bizikidetzari kalte larria egiten ez dion beste edozein oker.

### **5.- ELKARBIZITZAREN AURKAKO PORTAERETAN APLIKATU BEHARREKO HEZKUNTZA NEURRIAK**

Elkarbizitzaren Erregelamenduan jasotzen diren elkarbizitzaren aurkako portaeretan aplikatu daitezkeen hezkuntza neurriak hauek dira:

- a) Kargu-hartze pribatua edo publikoa, ikastetxeko zuzendaritzari eta ikaslearen tutoreari gertatutakoa jakinarazita.
- b) Elkarbizitzaren aurkako portaera zein irakaslearekin gertatu den, hark ematen dituen irakasgaien eskoletara agertzeko debekua, 3 saiotarako gehienez. Ordu horietan, ikasleak neurria aplikatu duen irakasleak erabakitzen dituen prestakuntza jarduerak egin beharko ditu ikastetxean, bere hezkuntza eta ebaluazio prozesua ez eteteko. Urrutiko eskolak edo eskola telematikoak badira, plataformatik gehienez 3 saio deskonektatzea.
- c) Hezkuntza-komunitateko edozein kideri (irakasleak, ikasleak, irakasleak ez diren langileak) edo komunitate horretan lan egiten dutenei eragindako kalte morala konpontzen lagunduko duten ekintzak egitea. Ekintza konpontzaileak eskola-ordutegiaren barruan eta gertatu diren testuinguru berean egingo dira.

- d) Ikastetxeko instalazioak, materialak edo altzariak konpontzen laguntzeko lanak egitea, bai eta hezkuntza-komunitateko edozein kideren edo komunitate horretan lan egiten dutenen ondasunak konpontzen laguntzeko lanak ere. Lan horiek eragindako kaltea konpontzea edo, horren ordez, konponketa horren zenbatekoa ordaintzea izan daitezke. Eragindako kaltea konpontzen bada, zentroa irekita dagoen ordutegian egingo da.
- e) Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea denbora mugatu baterako
- f) Azterketa, proba edo ariketaren kalifikazio negatiboa.
- g) Egindako bizikidetzaren aurkako jokabideari buruzko ohartarazpena. Ikasleak idatziz hartu beharko du ohiturak aldatzeko konpromisoa (norberaren higieñez nahita eta behin eta berriz deskuidatzea, janzkera desegokia erabiltzea, maskarak oker erabiltzea edo osasuna prebenitzeko beste neurri batzuk hartzea, edozein substantzia toxiko kontsumitzea).
- h) Tutorearen ohartarazpen idatzia, irakaskuntza presentzial ez dualean matrikulatutako ikasleentzat eskolara joateko justifikaziorik gabeko 10 ordu eginez gero, edo irakaskuntza presentzial dualean matrikulatutako ikasleentzat eskolara joateko justifikaziorik gabeko 6 ordu eginez gero. Ohartarazpen bidez berariaz adieraziko da, praktikarik aldatu ezean, matrikula bertan behera utz daitekeela, 30 ordu betetzeak klasera joateko justifikaziorik ez duelako.
- i) Ikasketaburutzak idatzizko ohartarazpena egingo du, irakaskuntza presentzial ez dualean matrikulatutako ikasleak eskolara joan behar badute justifikaziorik gabe 20 orduetan, edo irakaskuntza presentzial dualean matrikulatutako ikasleak eskolara joan behar badute justifikatu gabe 12 orduz. Ohartarazpen horretan berariaz adieraziko da, praktikarik aldatu ezean, matrikula bertan behera utz daitekeela, klasera joateko justifikatu gabeko 30 orduak betetzean.

## **6.- ELKARBIZITZAREN PORTAERETAN HEZKUNTZA NEURRIAK APLIKATZEKO PROZEDURA**

1. Elkarbizitzaren aurkako portaeretan hezkuntza neurriak aplikatzea ikastetxeko zuzendariari dagokio. Aplikazio honek organo edo irakasle baten esku uztea.
2. a) neurria:
  - Neurria gertaera eragiletik ahalik eta hurbilen zehaztu beharko da.
  - Neurria elkarbizitzaren aurkako portaerak eragindako irakasleari dagokio. Ikasleei ezarritako prestakuntza-jarduerak zaintzeaz guardiako irakasleak arduratuko dira, eta, aldi berean, haien bertaratzea kontrolatuko dute. .
  - Elkarbizitzaren aurkako portaerak eragindako irakasleek ikastetxeko zuzendaritzari eta tutoreari jakinaraziko diete erabakia, eta haien, halaber, gurasoei edo legezko ordezkariari (adingabeak badira) jakinaraziko diete.



3. b), c) eta d) neurriak:

- Neurri horiek ikastetxeko zuzendaritzak eskuordetu ahal izango dizkio elkarbizitzaren aurkako portaera izan duen organo, kargu edo pertsonari.
- Neurri horien berri emango zaie ikasleari, ikastetxeko zuzendaritzari eta tutoreari, eta azken horrek gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die, adingabeak badira.

4. Irakasgaiaren arduradunari dagokio f) neurria aplikatzea. Azken horrek ikastetxeko zuzendaritzari eta tutoreari jakinaraziko die bere erabakia, eta tutoreak, aldi berean, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die, adingabeak badira.

5. g) neurria aplikatzea ikastetxeko zuzendaritzari dagokio, elkarbizitzaren aurkako portaera izan duen hezkuntza-arduradunak txostena egin ondoren. Zuzendaritzak zainduko du elkarbizitzaren aurkako portaera izan duenak sinatutako konpromiso-dokumentua. Ikastetxeko Zuzendaritzak neurri horren berri emango dio tutoreari, eta hark gurasoei edo legezko ordezkariari jakinaraziko die, adingabeak badira.

6. Ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak modu desegokian eramateagatik edo erabiltzeagatik aplikatzen diren hezkuntza-neurriak alde batera utzita, irakasleak berehala entregatzeko eskatu ahal izango die ikasleei, eta eskola amaitutakoan itzuli egingo dira.

7. Ekintzen egileen berri izan eta hogeit hamar egun igarota hezkuntza neurriak aplikatu ez bada, ezin izanen da horrelakorik aplikatu.

8. Elkarbizitzaren aurkako portaerarako hezkuntza neurrien aurka ezin da inolako erreklamaziorik egin administrazio bidean.

### 7.- ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERAK

Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak dira, Elkarbizitzaren Erregelamenduan agertzen direnetatik ikastetxeko ohiko elkarbizitza larriki nahasten dutenak. Nolanahi ere, honako hauek elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaeratzat hartuko dira:

- a) Irakasleen edo haren agintearen aurkako edo eskola elkartekoak diren edo haren zerbitzura jarduten duten kideen aurkako irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, haien aurkako indarkeria fisikoa edo bestelakoa eta, halaber, haienganako jazarpen eta hitzezko edo egitezko jokabideak.
- b) Eskolako jazarpena, hau da, ikasle batek edo gehiagok ikaskide batenganako hitzezko iraina, gizarte-gaitzespena, larderia psikologikoa eta/edo eraso fisikoa luzaroan izatea. Jazarpen hori ikastetxean eta/edo kanpoan egin daiteke, baita teknologia berriak erabiliz ere.
- c) Genero indarkeria hezkuntzaren eremuan, hau da, kalte fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak eragin diezazkieketen emakume ikasleen aurkako indarkeria ekintzak eta mehatxuak.
- d) Sexu-orientazioan edo identitatean, arrazan, etnian, erlijioan, sinesmenetan edo desgaitasunean oinarritutako hitzezko edo ekintzazko atentatu-



- jokabideak, edo ezaugarri pertsonalengatik, ekonomikoengatik, sozialengatik edo hezkuntzengatik ahulenak diren ikasleen aurka egiten direnak.
- e) Eskolaldiko edo hezkuntzako jardueren barreneko testuak, irudiak, soinuak eta abar grabatzea zuzendaritzak baimentzen ez dituen erabileretarako, baita pertsonen bizitza pribatuarekin zerikusia duen edozein eszena grabatzea ere, bai eta horien hedatzea ere, baliabide elektronikoen bidez edo beste baliabide batzuen bidez.
  - f) Zentroan zerbitzuak ematen dituzten langileen aurkako erasoak, fisikoa zein ahozkoa.
  - g) Ikastetxeko instalazioak, materialak edo altzariak, baita eskola elkartekoak diren ere, kaltea larria denean.
  - h) Asmo txarrez eginak izateagatik, eskola elkartekoak diren osotasun fisikoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen portaerak
  - i) Ikastetxeko langileei gezurrak esatea edo nahita informazio faltsua ematea
  - j) Ikastetxeko gauzak edo edozein pertsonaren gauzak lapurtzea.
  - k) Ekitaldi akademikoetan beste pertsona baten itxurak egitea eta agiri akademikoak faltsutzea edo lapurtzea. Bereziki larritzat joko da azterketen ereduak edo erantzunen kopiak lapurtzea, eta haiek hedatzea, edukitzea, erostea edo saltzea.
  - l) Elkarbizitzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.
  - m) Obedientzia ukatzeko portaerak, bereziki ezarritako hezkuntza neurriak betetzen ez direnean
  - n) Konstituzioan jasotako eskubide eta askatasunen aurkakoak diren edo terrorismoaren apologiatzat hartzen diren pintaketak edo idatzizko beste adierazpen batzuk egitea edo halako kartelak jartzea.
  - o) Drogen kontsumoa, banaketa, zentroko espazioetan edozein motatako substantzia toxikoak behin eta berriz kontsumitzea, edo portaera horiek hartzerantz bultzatzea.
  - p) Elkarbizitzaren aurkako portaerak behin eta berriz hartzea
  - q) Eskolara ez joateko justifikatu gabeko hutsegiteak behin eta berriz egitea, 30 ordura iritsiz irakaskuntza presentzial ez-dualean matrikulatutako ikasleentzat, edo 18 ordura irakaskuntza presentzial dualean matrikulatutako ikasleentzat.
  - r) Ikastetxeko jardueren ohiko garapena zuzenean galaraztera bideratutako edozein egintza edo jokabide oker
  - s) Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak egitera bultzatzea.

### **8.- ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERETAN APLIKATU BEHARREKO HEZKUNTZA NEURRIAK.**

Aurreko paragrafoan deskribatutako bizikidetzarako oso kaltegarriak diren jokabideen aurrean, gertaera eragilearen aldeko hezkuntza-neurriak aplikatuko dira, eta zuzendu beharreko jokabidearen arabera, honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- a) Eskola ordutegitik kanpora, eskola elkartearen aldeko lanak egitea.
- b) Instalazioetan, materialetan, altzarietan, dokumentuetan edo beste pertsona batzuen gauzetan eragindako kaltea konpontzea.
- c) Jarduera osagarrietan eta/edo eskolaz kanpokoetan parte hartzeko eskubidea etetea ikasturte osorako edo zati baterako
- d) Ikaslea maila bereko beste talde batera aldatzea.
- e) Ikasgelara joateko edo plataforma telematikora edo haren zenbait edukitara sartzeko eskubidea etetea, ikasgai batean edo gehiagotan, edo ikastetxera joateko eskubidea, gehienez ere hamabost eskola-egunez.
- f) Ikastetxez aldatzea, hezkuntza-komunitatean alarma eragiten duten inguruabarrak gertatzen direnean.
- g) Matrikula deuseztatzea, elkarbizitzarako oso kaltegarriak diren portaeren aurrean. Muturreko hezkuntza-neurria da, eta kasu hauetan aplikatu ahal izango da:
  - Elkarbizitzarako oso kaltegarria den portaera oso larria (hezkuntza-komunitateko kide bati egindako eraso fisikoa, adibidez).
  - Bizikidetzari kalte larria egiten dion jokabidea, klasera justifikaziorik gabe joan ez den 30 orduetan iritsi delako, 10 eta 20 orduetako ohartarazpen idatzi bana jaso ondoren irakaskuntza presentzial ez-dualean matrikulatutako ikasleentzat.
  - Bizikidetzari kalte larria egiten dion jokabidea, klasera justifikaziorik gabe joan ez den 18 orduetan iritsi delako, 6 eta 12 orduetako ohartarazpen idatzi bana jaso ondoren irakaskuntza presentzial dualean matrikulatutako ikasleentzat.
  - Elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren portaerak errepikatzea (elkarbizitzarako bereziki kaltegarriak diren hiru portaera metatzea).
  - Derrigorrezko eskolatze adinetik gorako ikasle batek, bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera batengatik ikastetxeak neurri zuzentzaile bat aplikatu ondoren, uko egiten badio ikastetxeak proposatutako bizikidetzarako konpromisoa sinatzeari, haren matrikula deuseztatzen ahalko da, aldez aurretik ikasleari edo, adingabea bada, haren gurasoei edo legezko ordezkariari entzun ondoren.  
Ikaslea adingabea bada, gurasoei edo legezko ordezkariari ere proposatu behar zaie konpromisoa sinatzea (47/2010 Foru Dekretuaren 9. artikulua)
- h) Lanaldi batean mugikorrek edo antzeko aparatuek eskatzea; horretarako, gailua idazkaritzan utzi beharko da, lanaldiaren barruan, lanaldia amaitu arte. Ikasleak mugikorra edo antzeko aparatua utzi beharko du, deskonektatuta, eta entregatu eta erretiratu egingo du. Neurri hori denbora mugaturako hartuko da (edo mugagabea, mendekotasunen bat berrerortzean antzematen bada).

## 9.- ELKARBIZITZARAKO BEREZIKI KALTEGARRIAK DIREN PORTAERETAN HEZKUNTZA NEURRIAK APLIKATZEKO OHIKO PROZEDURA.

- 1) Portaera bereziki kaltegarri guztiak ikastetxeko zuzendaritzari berehala jakinarazi behar zaizkio.
- 2) Zuzendariak behar adina ikerketa edo jarduketa egiten ahalko ditu ekintza horrela tipifikatzeko, hala nola erantzuleak identifikatzeko eta ohiko prozedurari hasiera emateko.  
Eragindako gertakariaren larritasunaren arabera, zuzendariak kautelazko neurriak aplikatu ahal izango ditu, eta, kasuaren arabera, neurri horiei eutsi ahal izango die prozesua amaitu arte.
- 3) Ikastetxeko zuzendariak ohiko prozedura hasiko du, eta ikasleari jakinaraziko dio prozedura ireki dela, hura izapidetzeaz arduratuko den instruktorea, egitateak, inplikaturako pertsonak, bai eta inguruabar aringarriak edo astungarriak ere, halakorik balego.

Ikasleak, haren gurasoek edo legezko ordezkariak Zuzendaritzak bidalitako jakinarazpenean jasotako edozein alderdiri buruzko alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eta, era berean, instrukzio-egilearen aurkako errefusatze oinarritua aurkeztu ahal izango dute, bi eskola-eguneko epean.

- 4) Ikastetxeko zuzendariak prozedura adostuta izapidetzea proposatu ahal izango du, Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko Foru Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erabakitako prozedura egin ahal izango da, baldin eta, gutxienez, portaera larri kaltegarria aitortzen bada, bai eta barkamena eskatzen bada ere, hori gertatu zen inguru berean, kaltetuen aurrean, halakorik badago.

Adostutako prozedura izapidetzeko, honako hauek idatzi beharko dira: bizikidetzakonpromisoa, aplikaturako hezkuntza-neurria eta ikasleak eta haren gurasoek edo legezko tutoreek onartzeko konpromisoa.

- 5) Araudi honetan azaldu ez den hasitako prozedurarekin zerikusia duen guztirako (epeak, dokumentazioa, agerraldiak, erreklamazioak...), Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 47/2010 Foru Dekretuan xedatutakoa beteko da.

## 10.- ESKOLARA EZ JOATEKO PROPOSAMEN KOLEKTIBOAK (IKASLE GREBAK)

Klasera ez joateari buruzko erabaki kolektiboak Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei eta Bizikidetzari buruzko 47/2010 Foru Dekretuak arautzen ditu, hirugarren xedapen gehigarrian.

Ikasleek eskolara ez joatea sustatu ahal izango dute gertaera akademikoen inguruan dituzten desadostasunak adierazteko, eta ez-bertaratze horiek ez dira hutsegite zigorgarritzat hartuko, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Hezkuntza arloko erabakiekiko desadostasunengatik izan bada
2. Ikastetxeko zuzendaritzan eta ordezkarien batzarrean aurkeztutako proposamena, deialdia egiten dutenek sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Idazkia hutsegitearen eguna baino gutxienez hiru eskola egun lehenago aurkeztu beharko da, eta deialdiaren arrazoiak, dei-egileak, eguna, ordua eta iraupena aipatu beharko dira.
3. Gutxienez ikastetxeko ikasleen % 15ek edo gutxienez ikastetxeko ikasleen % 15en ordezkariak duten ikasleen elkarte legeztatuek edo ikastetxeko ordezkarien % 75ek sinatutako eskaeraren bidez egin beharko da proposamena.
4. Ikasleek gehiago osoz onartzea edo errefusatzeko. Bozketa sekretua izango da eta klaseka egin beharko da, horren emaitzen akta jasoz.
5. Ordezkarien Batzarrak guztirako emaitza eta gelaz gelako emaitzak jakinaraziko dizkio ikastetxeko zuzendaritzari, aurreikusitako jarduerak hasi baino gutxienez bi eskola-egun lehenago.
6. Ikastetxeko zuzendaritzak aztertuko du betebehar horiek betetzen diren eta, horren arabera, ebatziko du eskolara ez joate hori justifikatu gabeko hutsegitez hartzen den edo ez.

Programatutako probak edo azterketak, ahal denean, ikasgaiaren edo moduluaren hurrengo eskola-egunera atzeratuko dira, baldin eta ikasle gehienak eskoletara joaten ez badira.

Ikasgeletara ikaslerik joaten ez denean, ez-bertaratzeko orduetan garatu nahi zen irakasgaia berreskuratzea ikasleek berek egin beharko dute, beren kabuz. Irakasleek horretarako lan egokiak adieraziko dituzte.

Ikastetxeko Zuzendaritzak eskoletara joatea erabakitzen duten ikasleei bermatuko die ikasgaiak normaltasunez garatuko direla eta ez-bertaratzeak eragindako ikasgaien edo moduluen programazioan aurreikusitako ikasgaiak emango direla.